

Nola idatzi...

Emakumeen azterlanak

Wikipedia editatzean, batzuetan beldur pixka bat ere izaten dute hasiberriek; bereziki, eskolako lan baterako lehendabiziko aldiz Wikipediara ekarpena egiten ari diren ikasleek. Gida hau Wikipediara historiari buruzko edukiak gehitzeko lana eman zaien ikasleentzat da.

Izan zaitez zehatza

Wikipedia baliabide bat da, milioika pertsonak historiari buruzko informazioa jasotzeko erabiltzen dutena. Wikipedian historiari buruz irakurtzeko arrazoiak historia bezain askotarikoak dira. Pertsona eta gertaera historikoei buruzko eduki zehatz eta objektiboak dokumentatuz eta partekatuz, lagunduko duzu ziurtatzen mundu osoko jendeak giza jakintzaren eremu zabalago bat duela eskura.

Uler itzazu jarraibideak

Har ezazu denbora, hemengo iradokizunak irakurri eta ulertzeko; iradokizun hauek Wikipediara egiten dituzun ekarpenei baliorik handiena emateko bidea emango dizute. Jarraibide hauek betetzen ez dituen zerbait argitaratzen baduzu, hori konpontzeak denbora eta ahalegina eska dezake: edukia hobetzen eman zenezakeen denbora eta ahalegin bat. Jarraibide hauen barruan lan egiten eroso sentitzen ez bazara, esaiozu zure irakasleari ea Wikipediaz kanpoko lanen bat emango dizun.

Jardun ezazu beste editoreekin

Wikipediako esperientziaren parte bat da beste editore batzuen iritziak jaso eta haiei erantzutea. Ez

itxaron azken eguneraino ekarpen bat egiteko; bestela, ohar eta iradokizun lagungarriak galduko dituzu. Wikilariak zure lanari buruzko galderari erantzun diezaiakete, edo beharbada galderak egingo dizkizute. Galderarik egiten badizute, erantzun iezaiezu. Eskertu iezaiezu emandako laguntza, eta lan egizu haiekin batera, artikulua hobetzeko. Beharbada aldaketak egingo dizkiote zure lanari; edo, jarraibide hauek betetzen ez baditu, artikulutik ezabatuko dute. Horrela gertatzen bada, ez ezazu berriz eduki hori sartu besterik gabe! Galdetu iezaiozu edizioa egin duenari, ea zergatik egin duen, eta ea nola hobetu dezakezun. Eztabaida funtsezko osagaia da Wikipediako prozesuan.

Saihestu ezazu hurbiletik parafraseatzea

Erabil itzazu zeure hitzak. Plagioa egitea, testuak kopiatuz edo hurbiletik parafraseatuz (hau da, hitz gehienak aldatuz, baina testu originalaren egitura eta esanahia mantenduz), arauen kontrakoa da.

Plagioa egitea zure unibertsitateko ohore lege akademikoa urratzea da. Plagioari, Wikipedian, beste wikilari batzuek antzemango diote, edo tresna automatikoei. Hori gertatzen denean, beharbada zure lana ezabatuko dute, eta online erregistratuta geratuko da plagio gertaera bat zure kontuari lotuta. Baliabide eta autore estandarrak ere —hala nola ikasliburuak— egile eskubideen pean daude,

eta inoiz ez dira zuzenean kopiatu behar. Plagioari buruzko arauak Wikipediako alde guztietan aplikatzen dira, baita zure proba orriko zirriborro eta oharrei dagokienez ere.

Arazo hori saihesteko modurik onena da ziurtatzea zeure materiala benetan ulertzen duzula, eta horri buruz zeure hitzekin idazten duzula. Hurbi-letik parafraseatzea zer den garbi ez badakizu, jar zaitez harremanetan zure unibertsitateko Euskara Zerbitzuarekin.

Jar ezazu zeure aletxo

Har ezazu astia arauak eta jarraibideak ulertzeko. Beharbada beldurgarri samarrak irudituko zaizkizu, baina aurki zure jakintzen eta zentzuaren ekarpena egiten ari zure zara, zuk eta milioika lagun gehiagok egunero erabiltzen duzuen baliabide batera.

Artikulu bat aukeratzea

Irakasleak beharbada gai zerrenda bat eskainiko dizu, haietako bat har dezazun; edota nahi duzuna aukeratzeko esango dizu.

Artikulu egiteko hautagai onak dira bi multzo hauek: batetik, emakumeen bizitzak, lorpenak eta borrorak adierazten dituzten gaiak, eta aurrera doazen mugimendu politiko, sozial eta kulturalak; bestetik, bai orain, bai historikoki generoa eta hark beste identitate kategoria batzuekin dituen elkar-guneak islatzen dituzten kontuak.

Aukera ezazu gaikideek berrikusitako aldizkari edo liburu independenteetan literatura ugari duen gai bat. Wikipediako artikulu batzuk laburrak dira eta horrela irango dute; izan ere, ez dago horiek hedatzeko aski iturri fidagarririk.

Bila ezazu iturri interesgarri asko dituen gai bat, lehendabizi; gero, aukera ezazu Wikipediako artikulu bat, garatzeko, aurkitu duzun hartan oinarrituta.

Aukera ezazu Wikipedian oraindik ondo garatu ez den gai bat. Bilatu zirriborroak diren artikuluak. Interesatzen zaizun eremu bateko zirriborroak bilatzeko, idatz ezazu lasterbide hau Euskal Wikipediako bilaketa barran: | lasterbidea [WP:zirriborroak](#).

Hautagai onak bilatzea:

- GKontu orokorrak bilatzeko, idatz ezazu bilaketa laukian «Emakumearen», «Feminismoak» edo antzekoren bat.
- Sortu beharko liratekeen emakume biografiei buruz eta Euskal Wikipedian osatzeke dauden emakumeen inguruko gaiei buruz argibide gehiago nahi baduzu, bilaketa barran teklea ezazu «Wikiproiektu:WikiEmakumeok».

Idazten ari zaren artikulu antolatzea

Artikulu bakoitza bakarra izango da, baina hona hemen iradokizun batzuk, idatzi nahi duzun artikuluari zer sartu behar duzun. Atalak erantsi, kendu edo berantolatu ditzakezu, artikuluaren gaiari egokitzeko.

Kultura produktu bati buruzko artikulu:

Emakumez edo emakumeen kontuez diharduten liburuak, artelanak, filmak edo bestelako produktuak nabariak dira eta Wikipedia artikulu bat merezi dute, baldin iturri fidagarri batean edo gehiagotan estaldura nabarmena badute

Pertsona nabarmen bati buruzko artikulu

Biografia artikulu baten adibide onak dira «Edith Clarke», «Mary Anning» edota «Oneka Ortiz». Wikipediako biografia artikulu on askok egitura hau dute:

- Sarrerako atala: puntu nagusiak aipatzen ditu.
- Karrera, ekintzak edo esperientzia definitzaileak, kronologikoki eta testuinguru historikoarekin azalduta.
- Ondorena: politikan, teorian, kulturean edo beste arloren batean egin zituen ekarpen nagusiak.
- Argitalpenak edo bestelako lanak.

Bizi diren pertsonen artikuluak editatzean, eskakizunak zorrotzagoak dira, zorrotzago aztertu behar dira iturrien neutraltasuna eta egiaztagarritasuna.

Gizarte kondizio bati buruzko artikulua

Gizarte kondizioaren adibide dira gazte transgeneroen pertzepzioak, edo tibetar emakumeek Nepalen duten ekonomia estatusa. Hona hemen artikulua izan beharreko oinarriak:

- Sarrerako atala.
- Definitu kondizioa: besteak beste, non gertatzen den eta nori eragiten dion. Zer identitate formak antolatzen dute eragindako komunitatea?
- Gaiaren testuingurua eta historia: besteak beste, aktibista nabarmenak, teorialari garrantzitsuak eta liderrak.
- Halakorik izan bada, azaldu itzazu arazo hori onera ekartzeko egindako ahaleginak eta ahalegin horiek izandako kritikak, neutraltasunez eta iturriak aipatuz.

Iturriak bilatzea

Pentsa ezazu kritikoki

Nola identifikatu idatzi nahi duzun Wikipedia artikulua eratzeko erabili ditzakezun iturriak? Iturriek fidagarriak eta argitaratuak izan behar dute; eta, oro har, hirugarren batek berrikusiak, zehatzak direla egiaztatzen. Gehien- goaren ikuspegia eta gutxiengo nabarmenen ikuspegiak objektibotasunez azaldu behar dira. Lan argitaratuaren artean sartzen dira filmak, podcastak eta egile fidagarriaren batek egindako bestelako lanak.

Iturri ebaluatzea

Iturriak ebaluatzen ikastea funtsezkoa da zure jakintza eremuari begirada kritikoarekin begiratzeko; eta halaxe da Wikipedian ere.

Kontuan hartu beharreko lehenengo faktorea **egilea** da. Gaikideek berrikusita argitaratu duten egileak nahiago dira, beren lana (dela blog bateko testu bat, dela liburu serie bat) eurek argitaratu duten egileen gainetik.

Bigarrenik, kontuan har ezazu **testua** bera. Wikipedia artikuluetan gerta daiteke eztabaidarik gabeko konklusioak egotea, zure jakintza eremuko adostasun zabalaren kontrakoak direnak. Ba al da iturri fidagarriaren bat, gaia ikuspegi feministatik agertzen duena? Hala baldin bada, erabil ezazu iturri hori, ikuspegi hori artikuluan sartzeko.

Azkenik, aintzat har ezazu **argitaratzailea**. Aipatutako lana soziologia arloko literaturaren argitaratzaile fidagarri batengandik etor daiteke, hala nola: Sage Publications, Verso edo Routledge, liburuei dagokienez; edota Gender and Society edo Feminist Economics, aldizkariari dagokienez.

Iturriak nola aipatu jakiteko, ikus | lasterbidea [WP:Erref.](#)

Zer da lasterbide bat?

[WP:Zirriborroak](#) erako testuari, Wikipedian, lasterbidea deritzo. Horrelako lasterbideak teklea ditzakezu Wikipediako bilaketa barran, bestela aurkitzen zailak diren orri espezifikoetara erraz iristeko.

Eutsi neutraltasunari

Wikipedia ez da inor konbentzitzeko asmoz kulturari edo gizarteari kritika egiteko tokia. Kritika horien berri ematen duen ezaguera partekatzeko tokia da. Horregatik da hain garrantzitsua emakumeen bizitzari, lorpenari eta esperientzeari buruzko informazio ondo ikertua. Wikipediak askotan horrelako informazioa falta duelako, ekarpen horiek artikuluen edukia eta kalitatea hobetzen dute.

Wikipediaren neutraltasun jarraibideek hau aldeztzen dute: ikuspegi nabarmen guztiak adieraztea, zintzotasunez, proportzioz eta, ahal den neurrian, alderdikeriarik gabe. Artikuluek ikuspegi kontrajarrien garrantzi erlatiboa erakutsi behar dute. Artikulu askotan, emakumeak eta emakumeen ikuspegiak ez dira ageri, eduki «neutral» gisa ezarri den horretan. Ekarpen egokiek ikuspegi horiek jasoko dituzte, baina ezin dute ikuspegi horien alde egin.

Wikipediak tonu neutrala eskatzen du artikuluetarako, baina ez du eskatzen iturriak neutralak izatea. Feministek egindako elkarriketek («neutralak» diren edo ez berdindio) ederki argitu dezakete ikuspegi jakin bat. Aipa ezazu testua; eta adieraz ezazu zein ikuspegi duen, egokia baldin bada. Adibidez: «*Sara Ahmed ikertzaile feministak dioenez [...]*».

Wikipediaren neutraltasun jarraibidea gorabehera, beharbada alderdikeriaren mintzaira aurkituko duzu. Desegokiro generoa nabarmen duten esaldiak alda ditzakezu: adibidez, «emakume aktorea» jartzen duen tokian, «aktore» jarri. Beharbada, ikusiko duzu emakumeen lorpenak ez daudela egoki adierazita. Esaterako, testu hau idazten ari garen unean, Asun Garikano idazleari buruzko sarrerako atalean berehala dio Bernardo Atxagaren emaztea dela. Bernardo Atxagari buruzko

artikuluaren, ordea, sarrerako atalak ez du Garikano aipatzen. Alderdikeria horri aurre egin diezaiokizu, edizio arduratsuen bidez (hala ere, hitzez hitzeko aipamenak jasotzen dituzten zatietan, ez kendu alderdikeriarik).

Wikipediako neutraltasun jarraibideez gehiago jakiteko, ikus: | lasterbidea [WP:neutral](#).

Artikuluaren idaztea

- Idazten hasten zarenean, gogoan izan itzazu jarraibide hauek:
- Eskolako lan gehienetan ez bezala, Wikipedian ez da onartzen ikerketa originalik. Wikipediako artikuluek iturriek diotena jaso behar dute, eta ez zure interpretaziorik edo iritzirik.
- Idatz ezazu modu inpersonalean, datuetan oinarrituta, estilo entziklopedikoarekin; ez idatzi saiakeraren baten edo blog bateko testu baten modura. Ikus ezazu Wikipedia editatzea gida (lotura du zure ikastaroko orrian), tonuaren ezberdintasuna zein den gogoratu nahi baduzu.
- Idatz itzazu datu objektiboak. Errespetatu itzazu irakurleak, eta onar ezazu datu enpirikoek ez dituztela bi irakurle ondorio berera eramango beti. Kontuan izan ezazu horrek zer esan nahi duen, datu enpirikoei buruz zuk egiten duzun interpretazioaz.



Argitalpen honetan jasotako edukia eta irudiak Creative Commons Aitortu-PartekatuBerdin 4.0 lizentziaren pean daude erabilgarri, besterik adierazi ez bada.

Wiki Hezkuntzako marka erregistratzekotan dago. Wikipediako logoak eta hitz markak Wikimedia Fundazioaren marka erregistratuak dira. Marka horien erabilera Wikimediaren marka politikaren mende dago, eta horiek erabiltzeko beharbada beharrezkoa izango da baimena (https://wikimediafoundation.org/wiki/Trademark_policy). Wikipediaren markei buruzko galderak egiteko, idatz ezazu trademarks@wikimedia.org helbidera (ingelesez).

Eskerrik asko wikilari hauei: User:Another Believer, User:AustralianRupert, User:Cinderella157, User:Sadads eta User:Wehwalt, gida hau egiteko laguntza baliotsua eman dutelako.

Itzultzailea: Xabier Armendaritz.

- Artikuluko gaiaren alderdi bakoitzari eman diezaiokizu dagokion pisua, gaiari buruzko iturriek diotenari jarraituz.

Azken gogoetak

- Artikuluaren ikerketari buruz idazten ari bazara, saia zaitez haren metodologiaren deskribapen osoa egiten. Horregatik da garrantzitsua artikulurako darabilzun materiala ulertzea eta zure ulerkera egiazta ezazu hainbat iturritan.
- Ez utzi lana azken unerako! Wikipediako artikulua on eta fidagarriak idazteko, denbora behar da. Ez itxaron azken minuturaino. Blokeatuta gelditzen bazara, eska diezaiokizu irakasleari epe luzeagoa; hobe duzu hori, Wikipediara jarraibide hauek betetzen ez dituen edukia gehitzea baino.
- Wikipediara ekarpenak egiteari buruzko galderarik baldin baduzu, galdetu zure ikastaroko orrian zehaztutako Wikipediako edukietako adituari, edo idatzi zure galdera Txokoran. Txokora joateko, bilaketa lantzeko tekla ezazu | lasterbidea [WP:Txokoa](#).
- Harro senti zaitez zure ekarpenez! Zure lan gogorrari esker, jendartearen areagotu egingo da emakumei, emakumeen lorpenei eta bizi-bizi ditugun giza eskubideen arazoei buruzko kontzientzia.

